

MAILA HANDIKO FUTBOLARI GAZTEEN EZAUGARRIEN GARAPENA ETA EBOLUZIOA

Tesiaren egilea: Iraia Bidaurreazaga Lopez de Letona

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Gorputz eta Kirol Hezkuntza Saila

Tesi-zuzendaria: Susana Maria Gil Orozko

Tesiaren laburpena:

Helburua. Gutxi dira urteetan zehar eliteko talde gazte baten jarraipena egin duten ikerketak. Horrela, lan honen helburua da maila handiko futbol-jokalari gazteen ezaugarri antropometrikoak, fisikoak eta fisiologikoak ezagutzeko. Horretaz gain, ezaugarri horiek denboran zehar nola aldatzen diren aztertu da. Are gehiago, futbol-talde profesional batean hautaketa-prozesuetan ezaugarri horien garrantzia zein den zehaztu nahi izan da.

Metodologia. Ikerketan parte hartu duten jokalariek 1999. urtean eta 1998. urtean jaiotako Athletic Club-eko gazteak izan dira. Ikerketa lau denboralditan zehar egin zen, 2009-2010 denboralditik 2012-2013 denboraldira, alegia. Urtero neurketak denboraldiaren hasieran eta bukaeran egin ziren. Horrela, zortzi momentu desberdinetan hurrengo neurketak egin ziren: antropometria osoa, errendimendu-probak (15-m leun, Barrow trebetasun-proba, besoen ekintzaren aurkako jauzia, Yo-Yo Etengabeko Suspertze Testa 1. maila eta esku-dinamometria) eta listulaginen bilketa (testosterona eta dehidroepiandrosterona hormonon kontzentrazioa). Gainera, adin kronologikoa eta adinaren arabera altueraren puntako abiadura kalkulatu ziren.

Emaitzak. Alde batetik ikusi zen jokalariek nagusitzen ziren heinean hazi egiten zirela eta errendimendu-probetan emaitzak hobetu egiten zirela. Hala ere, hazkundean eta proba fisikoetan ikusi ziren aldaketak ez ziren linealak izan. Izan ere, hazkunde- eta hobekuntza-gailurrak antzeman ziren adinaren arabera. Beste alde batetik, populazio desberdinak konparatzean ikusi zen Athletic Club-eko jokalariek populazio orokorra eta futbol-maila baxuagoko jokalariek baino altuagoak eta pisutsuagoak zirela eta gantz gutxiago zutela. Gainera, adin desberdinetan taldetik joaten ziren jokalariek, gelditzen zirenak eta etortzen zirenak konparatzean ikusi zen ezaugarriak aldakorrek zirela. Bukatzeko, ikusi zen adin kronologikoak, hazkunde-mailak, tamainak eta gantzak eragina zutela proba fisikoen errendimenduan, hots, haien errendimendu-maila aurreratzeko gai zirela.

Ondorioak. Jokalariak nagusitzen ziren heinean altuagoak eta pisutsuagoak bihurtu ziren eta proba fisikoen emaitzak gero eta hobeagoak izan ziren. Horrela, ikusi zen jokalarien hazkundeak eta garapenak garrantzia zutela errendimenduan. Gainera, jokalarien aukeraketan eragina zuten parametroen artean, gorputz-tamaina handia eta gantz kopuru txikia izateak garrantzia zuela ikusi zen. Nahiz eta nagusitu ahala errendimendu-hobekuntzak ikusi ziren, heldzeak eta hazkuntzak hobekuntza horietan eragina zutela ikusi zen. Zehazki, hobekuntzak ikusi ziren denboraldi guztietan zehar, seguru asko, gorputz-tamaina handitzearen ondorioz. Klubaren hautaketa- eta progresio-prozesuak aztertzean, ikusi zen bai aldagai antropometrikoek bai eta errendimendu-parametroek ere jokalaria aukeratuen eta ez aukeratuen artean desberdintzeko gaitasuna zutela. Gainera, prozedura horiek heldze berantiarra eta urte bukaeran jaiotako jokalariak baztertzeko zituzten. Ez hori bakarrik, klubean adin erlatiboak eragina zuela ikusi zen, hots, jokalarien ehuneko hirurogeita sei urteko lehenengo hilabeteetan jaiotakoak zirela ikusi zen. Bukatzeko, badirudi klubak tamaina handiko jokalariak aukeratzen zituela, helduak eta kronologikoki nagusiagoak zirenak, gantz gutxiago zutenak eta, oro har, proba fisikoetan emaitza onenak zituztenak; alegia, talentu gisa definituak ziren jokalariak.